



## **DBH 1**

### **ONGIZATE FISIKOA ETA EMOZIONALA**

---

#### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Irakasgai hau praktikoa da eta parte-hartzean oinarritua dago. Heziketa Fisikoaren arloan landutako alderdiak sakondu, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala indartzea du helburu nagusia.

#### **Eduki esanguratsuenak**

- Ongizate fisikoa: Ariketa fisikoak pertsonaren osasunean eta garapen integralean dituen ondorio positiboak.
- Ongizate emozionala: Autokontrola, tolerantzia eta kiroltasuna, emaitzak lortzeko zutabe. Arnasketa eta erlaxazioa, emozioen erregulazioarekin duten lotura.
- Gizarte-ongizatea: Kolaborazioa eta kooperazioa taldeko ikaskuntza-zereginetan. Konpetentzia motorraren maila guztiekiko eta aniztasunaren balioarekiko errespetua.

### **TEKNOLOGIAREN ETA DIGITALIZAZIOAREN HASTAPENAK**

---

#### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Astean bi orduz landuko den tailer honek, teknologia eta informatika oinarri praktikoa du helburutzat. Erronka teknologiko errezei autonomiaz eta jarrera sortzailez erantzuna emango diote ikasleek.

#### **Eduki esanguratsuenak**

- Adierazpen grafikoa. Erremintak eta materialak: arkatza, papera, erregelak. Zirriborroa eta krokisa. Akotazio hastapenak.
- Prozesu teknologikoa. Faseak. Proiektu tekniko erraza faseen arabera egin: tresnak gordetzeko ontzia.
- Elektrizitatea: oinarritzko kontzeptuak.
- Zirkuitu elektrikoaren oinarritzko osagaiak: sorgailuak, eroaleak eta hargailuak.
- Elektrizitate praktikak. Zirkuitu elektriko ohikoenak tailerrean osatu eta funtzionamendua frogatu.
- Hardware eta Softwarea: Ordenagailuaren oinarritzko osagaiak ezagutuko dituzte atal honetan.
- Ofimatika orokorra: eguneroko bizitzan erabilgarri izango zaizkizun tresna informatikoak erabiltzen ikasiko da. Testu editoreak, aurkezpenak, marrazkiak... Guzti hau software askeko eta online tresnen laguntzarekin.



## ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA (FRANTSESA)

---

**Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Maila honetan lehenengo urratsak ematen dira hizkuntzaren konpetentzia guztiak landuz: ulermena (bai idatzitako testuekin hala nola ahozkoarekin) eta ekoizpena (Idatzizkoa eta ahozkoa).

Sei unitate lantzen ditugu ikasturtean zehar. Unitate bakoitzean gramatika, hiztegia eta komunikazioa lantzen ditugu.

**Eduki esanguratsuenak**

- Identifier des choses et des personnes. Qui est-ce? Saluer, se présenter. Exprimer ses goûts.
- Présenter et décrire quelqu'un. Communiquer en classe. Dire la date. Inviter quelqu'un. Accepter, refuser une invitation.
- Présenter sa famille. Poser des questions sur quelqu'un, quelque chose. Décrire un objet. Parler de ses activités extrascolaires. Donner des ordres, instructions, conseils. Situer dans l'espace.
- Indiquer un chemin, une direction. Demander un chemin. Parler des moyens de transport. Demander et donner l'heure. Parler des saisons et de la météo.

**Oharra:** Frantsesa aukeratzen duenak, 1. eta 2. mailarako aukeratuko du. Hala eta guztiz ere, 1.mailaren amaieran, familiak eskatuta edota ikastetxeak erabakita, posible izango da ikasgai hori uztea.

## IKUS-ENTZUN TAILERRA

---

**Ikasgaiaren deskribapen laburra**

- Tailer honetan, ikasleek, lan praktikoak egingo dituzte; bakarka zein taldeka.
- Komunikazioa landuko da.
- Pelikulak ikusi eta aztertuko dituzte.
- Sorkuntza landuko da, beti ere, egileen eskubideak kontuan hartuz eta interneten segurtasuna zainduz.

**Eduki esanguratsuenak**

Animazioaren aurrekariak (flip-book-a) eta historiako tramankuluak ezagutuko dituzte. Argazkiak aterako dituzte: animazioak egiteko Stop motion, teknika erabiliz. Bideoak egingo dituzte, sekuentziak ezberdinak, kamera mugimenduak eta ikuspuntuak aztertuko dute. Bideo-klipa bat sortuko dute.

**Oharra:** DBH1 edo DBH2n egin ahal izango da, ez bietan.



## ESKULANGINTZA TAILERRA

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Digitala den garai hauetan, eskua eta imajinazioa trebatzeko irakasgaia da hau. Estetika eta erabilgarritasuna, hala nola, berrerabilpena eta birziklapena lantzen diren bitartean ikasleek, hainbat lan burutu beharko dituzte, bakarka edo taldeka, teknika, material eta tresna desberdinak ezagutuz.

### **Eduki esanguratsuenak**

- Tetra-brick erabiliz karterak egin.
- Propagandako aldizkariekin paperezko ontziak eta kutxak.
- Plastikozko ontzi eta bolitekin apaingarriak.
- Buztina.
- Papiroflexia.
- Makrame korapiloak.
- Paper machéko txontxongiloak eta maskarak.

**Oharra:** DBH1 edo DBH2n egin ahal izango da, ez bietan.

## TEKNOLOGIA DIGITALAK

---

### **Ikasgaiaren deskribapen laburra**

Tailer honen helburua da ikasleek IKTak modu sortzailean, kritikoan, eraginkorrean eta seguruan erabiltzen ikastea.

Ikasleek hainbat programa ezagutu eta landuko dituzte, bereziki Luberrri sistema eragilea, bere aplikazio garrantzitsuenak (software librea) eta beste software erabilienak. Hautazko hau erabat praktikoa izango da.

### **Eduki esanguratsuenak**

- Pribatutasuna eta segurtasuna: aztarna digitala eta teknologia digitalen erabilera egokia.
- Internet eta hezkuntzarako aplikazioak:
  - Internet zer den, nola funtzionatzen duen eta erabilera segurua sustatuko da.
  - Posta elektronikoaren erabileran trebatuko dira ikasleak.
  - Sorkuntza eta edizio tresnak landuko dituzte, non ikasleek beraien edukiak sortuko dituzte.
  - Biltegitarte sistema: Informazioa gordetzeko eta antolatzeko tresnak.
- Programazioa: Programazioarekin lehenengo hartu-emanak izango dituzte ikasleak. Modu erraz eta intuitiboan, lehenengo programak (jokoak batez ere) ezagutuko dituzte pentsamendu konputazionala landuz.
- Sistema eragileak: Ordenagailuaren oinarriko funtzionamendua landuko da Windows eta Linux sistema eragileetan.



## MATEMATIKA TAILERRA (Indartze tailerra)

---

### Ikasgaiaren deskribapen laburra

- Helburua jakintza gai honetan zailtasunak dituzten ikasleei laguntza eskaintzea da.
- Matematika gaien ematen diren edukiak landuko ditugu.
- Matematikako gai batzuetan oztopoak dituzten ikasleen euskarri izan nahi du tailer honek.

### Eduki esanguratsuenak

Matematika gaien lantzen diren gaiak landuko ditugu sekuentzia berean eta aldi berean.

## EUSKARA TAILERRA (Indartze tailerra)

---

### Ikasgaiaren deskribapen laburra:

- Tailer honen helburuak honako hauek dira: irakurketa, idazmena eta ulermena lantzea eta eskola orduetan sortzen diren zailtasunak eta gabeziei erantzutea.
- Arlo honetan zailtasunak dituztenentzat pentsaturik dago.

### Eduki esanguratsuenak

- Ozenki narrazio batzuen irakurketa adierazkorra eta ulerkorra egin.
- Dauden ereduak eraldatu (prestatutako testuak osatu, bukaera desberdinak asmatu ... )
- Testu berriak sortu.
- Kontzeptu ezberdinak sakondu.